

GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.k
HERNANIKO UDALERRIAN SELEKTIBOKI JASOTAKO
ERREFUSAREN TRANSFERENTZIA ZERBITZUA BURUTZEKO KONTRATUA

Hernanin, 2017ko irailaren 29an

AGERTU DIRA

Alde batetik, XABIER ARREGI IPARRAGIRRE jauna, GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ko lehendakaria, NAN/DNI-zka. 15.968.340-S duena, eta IDOIA LASA ELGEZUA andrea, GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ko kudeatzailea eta NAN/DNI-zka. 15.391.158-H duena.

Bestetik, Ignacio Eguiguren Urbistondo jauna, TRAEKO MEDIOAMBIENTAL S.L.ren ordez eta NAN/DNI-zka. 44.151.459-S duena.

ESKU HARTZEN DUTE

XABIER ARREGI IPARRAGIRRE jaunak, lehendakari gisa, GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ren izenean eta ordez; kontratuaren esleipen honetarako baimenduta dagoelarik Administrazio Kontseiluak 2017ko uztailaren 12an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

IDOIA LASA ELGEZUA andreak, bere karguarengatik GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.ren izenean; kontratuaren esleipen honetarako baimenduta dagoelarik Administrazio Kontseiluak 2017ko uztailaren 12an egindako bilkuran hartutako erabakiaren bidez.

Ignacio Eguiguren Urbistondo jauna TRAEKO MEDIOAMBIENTAL S.L. enpresaren izenean eta ordez; (enpresa honen helbidea Portuetxe 83, 3º Oficina 5 20018 Donostia da eta IFK/CIF-zka B20951810), enpresaren erabakiaren arabera.

Bi aldeek kontratu hau egiteko nahikoa lege-gaitasun aitortzen diote elkarri, eta horretarako

AZALDU DUTE

Aurrekari administratiboak

Kontratazio-espeditentea, aurrekontua eta Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiriak 2017ko maiatzaren 11n egindako bilkuran onartu zituen Garbitania Zero Zaborreko Administrazio Kontseiluak. Baldintza Agiri horien kopiak kontratuaren osagai gisa sartzen dira.

Administrazio Kontseiluak, 2017ko uztailaren 12an burutu bilkuran, aurkeztutako eskaintzetan puntuazio gehien jasotakoak, TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L. enpresak aurkeztutakoak, baldintza guztiak betetzen zituela eta aipatu enpresari kontratua esleitzea erabaki zuen.

Enpresa horrek zerbitzua eman ahal izateko baimen guztiak izan eta jakinarazten zaioenetik 10 laneguneko epean ezarri du, bermea 1.664,00€koa delarik.

KLAUSULAK

1.- TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L. enpresak Hernaniko udalerrian selektiboki jasotako errefusaren transferentzia zerbitzua emango dio Garbitaniari, zorrotz betez Administrazio Klausula Partikularren Agirian eta Baldintza Teknikoen Agirian, baita kontratistaren proposamenean dauden espezifikazioak ere.

2.- Garbitania Zero Zabor S.M.k aipatu enpresari, Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren 6garren klausulan zehaztutako eran eginiko eskaintzaren arabera ordainduko dio, 77,80 €/ bidaiako, gehi 7,78€ %10ko BEZari dagozkionak.

3.-Kontratu honek 2 urteko iraupena izango du.

Kontratuaren amaieran, Garbitania Zero Zabor S.M.k horrela eskatuz gero eta gehienez urte beteko 2 alditan (aldi bakoitzean Administrazio Kontseiluak horrela onartuz gero), esleitu zerbitzua luzatzera behartuta legoke, esleitu berri batek lan hauek burutzeko konpromisoa hartzen duen arte.

4.- Bi aldeak beharturik daude kontratu hau betetzera, baita Administrazio Klausula Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agiria eta kontratistaren proposamenean dauden espezifikazioak; eta horietan ezarri gabeko guztian, Sektore Publikoko Kontratu Legeak eta Herri Administrazioen Kontratu Legearen Erregelamendu Orokorrak ezarritako aginduetara makurtuko dira espresuki, baita administrazio-zuzenbideko arau orokorretara eta, horrelakorik ezean bakarrik, zuzenbide pribatukoetara.

Eta adostasunaren froga gisa, bi aldeek bi ale izenpetuko dituzte goian aipaturiko lekuan eta egunean.



Ignacio Eguiguren Urbistondo
TRAECO MEDIOAMBIENTAL S.L.

Xabier Arregi Iparragirre
Idoia Lasa Elgezua
GARBITANIA ZERO ZABOR S.M.